

**EUSKO JAURLARITZAKO
ETIKA PUBLIKORAKO
BATZORDEAREN
MEMORIA**

2017

Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeak (EPB) 2017. urtean zehar egindako lana erregistratzea da memoria honen xedea, Gobernu Kontseiluari ezagutzera eman eta ondoren haren zabalkunde publikoa egiteko. Memoria eginez bete egiten da Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartu eta urte bereko ekainaren 3an EHAAn argitaratutako Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.3 puntuan ezarritakoa; hain zuzen ere, puntu horren arabera EPBri dagokio "Etika eta Jokabide Kodea betetzen dela egiaztatzeko urtero egingo den txostena lantzea". Txosten hori Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio, jakinaren gainean egon dadin eta hark ontzat ematen dituen gainontzeko ondorioak izan ditzan.

Aurkibidea

1. Aldaketarik ez dago Etika Publikorako Batzordearen osaeran, ez eta Etika eta Jokabide Kodearen edukian ere	4
2. Memoriak jorratutako aldiak aztertu eta ebatzitako gaiak	5
a) Berriz ere zenbait kargu publikoduni judizialki deklaratzera deitu zaie, ikertu gisa.....	6
b) EJKren aplikazioaren esparru subjektiboari buruzko gogoeta batzuk.....	8
c) EJKren aldi baterako aplikazioaren esparrua	10
d) Telebistako programetan, eztabaidetan edo hizketaldietan parte hartzeari buruzko lehen erabakia.....	14
Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Estatistika	19
a) Gai-motak	20
b) Planteatutako gaiak eta adostutako akordioen ildo orokorrak.....	21
3. Prestakuntza- eta zabalkunde-jarduerak.....	34
4. Ondorioak eta gomendioak	36

1

Aldaketarik ez dago Etika Publikorako Batzordearen osieran, ez eta Etika eta Jokabide Kodearen edukian ere

2017an ez da aldaketarik izan EPBaren osieran. Batzordea osatzen jarraitzen dute 2016. urteari buruzko memoriaren 2. epigrafean aipatu genituen pertsona berek.

- **Presidentzia:** Josu Iñaki Erkoreka Gervasio (Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburua)
- **Bokala:** Andres Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)
- **Bokala:** Elisa Pérez Vera
- **Bokala:** Txetxu Ausín Díez
- **Idazkaria:** Maite Iruretagoiena Ibarguren (IVAPeko zuzendaria)

Bestalde, indarrean dagoen Etika eta Jokabide Kodearen testuan ez da inongo aldaketarik izan. Joan den urteko memorian nabarmendu genuenez, XI. legegintzaldiaren hasieran Gobernu Kontseiluak zenbait aldaketa sartu zituen Kodean, EJK honek aurrez egindako gomendioei jarraituz. Orduetik, ez da inolako aldaketarik izan.

2

Memoriak jorratutako aldiaren aztertu eta ebatzitako gaiak

2017. urtean, EPBk hamaika erabaki hartu ditu. Joan den urteko memoria 2016an erregistratutako kasuen kopuruaren beherakada lotu genuen irailaren 25erako hauteskunde-deiarekin; izan ere, horrek Exekutiboaren jardura mantsotu zuen ekitaldiaren bigarren zatian, eta berekin ekarri zuen erantzukizun publikoez baliatzearen ondorioz kargudun publikoengan sortutako zalantza etikoak gutxitzea; bada, 2017an zehar Batzordearen jarduerak izan duen igoera lotu behar dugu jardura administratibo arrunta berreskuratzearekin, hauteskondeek eragin zuten parentesiaren ondoren.

Kasu gehienetan —zehazki, zortzitan; hau da, guztizkoaren % 72,7— EPBk kontsulta gisa aztertu ditu 2017an heldu zaizkion gaiak. Gainerako hiru kasuetan, kasuak iritsi zitzaizkigun salaketa bat aurkeztu izanaren ondorioz, eta salaketa horietatik bakarra ere ez zen anonimoa izan. Bestela esanda, aipatutako hiru kasuetan, EPBri ustez EJKren aurkako jokabideen berri eman zion pertsonak hori egin zuen bere nortasuna argi adieraziz, eta horrek aukera eman zigun guri aztertzeke eman zizkiguten gaiak ebatzteko salaketa anonimoak direla-eta ezarrita daukagun doktrinara jo behar izan gabe.

Batzordeak aztertutako kontsultei dagokienez, komeni da azpimarratzea haiek guztiak interesdunek beraiek egin zituztela.

Grafikoki adierazita, eman berri dugun informazio estatistikoa honako taula honetan laburbil daiteke:

Kasua azaltzeko modua	Kasu-kop.
Kontsulta	8
Salaketa	3
Guztizkoa	11

Hauek dira EPBk 2017an hartutako erabakien alderdirik aipagarrienak:

a) Berriz ere zenbait kargu publikoduni judizialki deklaratzera deitu zaie, ikertu gisa

EPBk aztertu dituen hamaika kasuetatik bostek lotura zuten EJKren 15 d) apartatuak kargudun publikoei ezartzen dien betebeharrarekin, alegia, Batzordeari jakinaraztekoa prozedura penal judizialen barruan ikertu gisa deklaratzeko jasotzen dituzten zitazioak. Zehazki, 4, 5, 7, 8 eta 9/2017 erabakien bidez ebatzitako gaiiei buruz ari gara.

Lehenago ere, 2015eko eta 2016ko memorietan, aipatu izan dugu EPB honek ezarritako —eta berretsitako— doktrina EJKren aipatutako apartatua dela-eta. Orain, ordea, zera gehitu nahi dugu: Kodeak ezarritako obligazio bat dela, helburu duena jokabide zuzen bat —kautelazkoa edo prebentiboa— finkatzea orain arte gertatu ez den eta euskal sektore publikoan ia aurrekaririk ez duen fenomeno bat dela-eta.

Izan ere, tradizionalki, jarduera administratiboaren aurkaratze judiziala gertatu izan da, ia kasu guztietan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, zeina sorreratik pentsatua baitzegoen, hain zuzen ere, “erregelamenduak egiteko ahala, administrazio jardunaren legezketasuna eta jardun hori zein helburuk justifikatu eta helburu horiekiko mendekotasuna kontrolatzeko” (Espainiako Konstituzioaren 106. artikulua). Azkenaldian, halere, gero eta gehiago ikusten ari gara Administrazio Publikoaren jardueraren aurkako borroka judiziala bideratzen dela, hain zuzen, administrazioan diharduten kargudun publikoen aurkako kereila penalak aurkeztuz.

Ez da soilik Euskadin gertatzen ari den zerbait, baizik eta intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin Espainiako Estatu osoan egiaztatuta dagoen joera bat. Eta badirudi horren arrazoia dela eraginkorrago gertatzen dela erakunde publikoen jokabidearen aurka borrokatzea jokabide horien erantzuleak jarriz epaileen eta arlo penal jurisdikzionalerako epaitegien aurrean —horrek hedabideetan inpaktu handiagoa daukalako eta narriatze politikoa dakarrelako—, administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkezte baina, zeinak, azkenean, aukera ematen baitu

errekurritutako egintza edo xedapena deuseztatzeko edo haren baliogabetasuna deklaratzeko, baina ez baitu balio hura eman zuen pertsona edo organoa deseroso sentiarazteko edo harengan nahasmenen bat sortzeko.

EPB honek ezagutu dituen kontsultak eragin dituzten kereila kriminal gehienak oposizio parlamentarioan dauden talde politikoek edo exekutiboaren aurka dauden erakunde sindikalek sustatu izana lagungarri gertatzen da gogoeta horri babes emateko. Norabide berean dago kausaren largespen librea edo behin-behinekoa erabakitzen duten auto judizialak ugari izatea, argudiatuta jurisdikzio kriminalean salatutako egitateetan antzeman diren irregulartasunek ez dutela behar besteko garrantzirik, ez eta kasuko tipo penala osatzeko behar diren baldintzak ere, eta gogoraraziz antzemandako “eztabaidak, desadostasunak, irregulartasunak, baita *contra legem* erakoak ere —hau da, legez kanpokoak, salatzailearen ustez indarreko araudiaz edo jarraitu beharreko prozeduraz kanpokoak izateagatik— kasuko arlo jurisdikzionaletan ebatzi ahalko direla”, zeren eta “zuzenbide penala” “azken ratioa” baita, are gehiago zuzenbide administratiboaren jurisdikzio-kontrolak ohikoa izan behar duenean, eta kontrol penalak, berriz, apartekoa”.¹

Ez dugu uste beharrezkoa denik memoria honetan berriz ere errepikatzea gai honi buruz 5/2015 Erabakian finkatu genuen irizpidea, hain zuzen ere ia hiru urtez behin eta berriz adierazi duguna. Ez da alferrik izango, halere, berriz ere aipatzea, datu berriak emanda, sinetsita baikaude haiek zuzenak eta egokiak direla.

2016ko memorian esaten genuen hura idazteko garaian eskura zeuden datuek ematen zuten behin-behineko balantzeak “abalatzen duela kasu hauetan operatzeko egin dugun hautua, zorrotza baina zuhurra”. Izan ere, ikertu gisa deklaratzeko zitazio judizialengatik bederatzi kontsulta jaso zituen EPB; horietatik zazpi kasutan largespena eskatu zen, eta ahozko judizioa ez zen kasu bakar batean ere ireki.

Gaurko egunez, bada, balorazio hori datu berriekin berrets dezakegu: 2015etik 2017ra aztertutako hamabost kasuetatik hamahirutan —zehazki 2015ean eta 2016an planteatutako guztietan eta 4/2017, 5/2017 eta 9/2017 erabakien bidez ebatzitakoetan— kasuko organo judizialak kasuaren largespena erabaki du. Eta beste bietan —7/2015 eta 8/2017— gaur arte ez da ebazpen judizialik izan.

Hurrengo taulan modu grafikoan jaso ditugu kopuru horiek:

¹ 171/2017 autoa, 2017ko irailaren 15ekoa, Gasteizko Instrukzioko 2. Epaitegiak emana 1676/2016 aurretiazko eginbideen kariatara. Antzeko aipamenak aurkitzen dira instrukzio-epaitegiekin edo kasuko probintziako auzitegiekin emandako autoetan, zeinetan EPBari aurkeztutako gaiekin lotutako kausen largespena erabakitzen baita.

Zenbakia	Kasua	Egoera prozesala
1	4/2015	Largespena
2	5/2015	Largespena
3	6/2015	Largespena
4	9/2015	Largespena
5	13/2015	Largespena
6	3/2016	Largespena
7	4/2016	Largespena
8	6/2016	Largespena
9	7/2016	Largespena
10	8/2016	Largespena
11	4/2017	Largespena
12	5/2017	Largespena
13	7/2017	Aurretiazko eginbideak
14	8/2017	Aurretiazko eginbideak
15	9/2017	Largespena

Batzordeak horrelako kasuei erantzuna emateko erabilitako irizpidea beste bat izan balitz, gaur arte largespena erabakitako kausekin lotutako hamahiru kargudun publikoek —zeinek EPB honek 2015etik 2017ra ezagututakoen % 86 egiten baitute, bai eta judizialki ebatzi direnen % 100 ere— izaera profilaktikoko kautelazko neurri batek ukituta egon zitezkeela pentsatze hutsak —neurri horrek, zalantzarik gabe, balio izango zuen haien izen ona, kontsiderazio publikoa eta prestigioa ahultzeko— eramaten gaitu sinesmen hori berrestera, alegia, arlo penaleko epaile batek ikertu gisa deklaratzeko zitazioa bidalitako kargudun horiek egindako kontsultak arreta handiz ebazten jarraitu behar dugula, betiere begiratur kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabar pertsonalei, eta une oro uztartzen saiatuz, batetik, eredugarritasunarekin lotutako jokabide etikoak betetzeko zorrotasuna eta, bestetik, kasu bakoitzaren ponderazioan nahitaezkoa den zuhurtasuna.

b) EJKren aplikazioaren esparru subjektiboari buruzko gogoeta batzuk

1/2017 Erabakian, lehenengo aldiz nabarmendu genuen ezen EJKren hartzaileak direla, zorrotz hartuta, euskal sektore publiko autonomikoko kargudun publikoak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen aplikazio-eremuan sartzen direnak; horrek kanpo uzten ditu, hasiera-hasieratik, eremu horretan zerbitzuak ematen dituzten enplegatu publiko guztiak, funtzionarioak izan ala ez, estatutu-araubidekoak zein lan-araubidekoak.

EJKren 2.2 apartatuan babes zuzena duen pronuntziamendu hark, hain zuzen, balio izan zuen erabakitzeke aurkeztutako salaketa bat ez zela izapidetzeko onartuko; salaketa hori aurkeztua zen, besteak beste, Euskal Administrazio Publikoko funtzionarioa zen baina inongo kargu publikorik betetzen ez zuen pertsona baten aurka.

Alabaina, arlo honetako doktrinarik onenak aldeztu izan duen bezala, izaera etikoko balio eta printzipioak ez zaizkie soilik kargu publikodunei exijitu behar, baizik eta instituzio osoari. Izan ere, kargu publikodunak, euskal sektore publiko osoan zerbitzuak ematen dituzten pertsonen multzoan, parte kualitatiboki nabarmena dira baina kuantitatiboki txikia.

Erakundea bera da integritaterako bere esparrua definitzen duten balio etikoak baieztatzen, aldarrikatzen eta irradiatzen dituen, eta bere baitan lan egiten duten pertsonen haiek betetzea eskatzen diona, zeren eta hain zuzen ere herritarrek erakundeengan duten konfiantza baita babestu behar dena, erakunde publikoetan haien arduradun gorenentzat ezarritako integritate sistemekin. Zorroztasun handiz adierazi izan den bezala, “etika publikoaren esparruan bereziki interesgarria dena ez da hainbeste arazoaren *dimentsio subjektiboa* (nahiz eta, zalantzarik gabe, aurrekoaren guztiaren oinarria izan), baizik eta jokabide horiek erakundearen sinesgarritasunean, irudian edo legitimazioan izan ditzaketen eraginak edo ondorioak. Arazoaren *dimentsio objektiboa*, horrenbestez, erabakigarria da etika publikoan”².

Zentzurik ez du, horrenbestez, erakundeak bere kargudun publikoei erakunde publikoaren integritate etikoaren izenean eta haren irudia eta sinesgarritasuna babesteko, eskatzen dizkien jarrerak eta egiteko moduek beren indar loteslea galtzea jarduten duten pertsonak langileen plantilletako kideak direnean. Erakundeak balio etiko batzuk goraiatzeko baditu, balio etiko horiek berdin-berdin bete behar dituzte hura zerbitzatzen duten gainerako guztiek ere. Bestela, haiek debalututa geratzen dira, eta soilik zati batean asebeterik, eta horrek herritarren konfiantza ahultzeko arriskua dakar.

Hori guztia dela eta, Administrazioari gomendatu behar diogu azter dezan aukerarik ba den EJK inspiratzen duten balio eta printzipioak Euskadiko sektore publiko autonomikoa osatzen duten erakundeetan lan egiten duten langile guztiei zabaltzeko.

Arestian aipatutako EJKren 2.2 apartatuak horri buruz ezartzen du sektore publiko autonomikoko langile funtzionarioek eta lan-kontratadunek enplegu publikoari buruzko euskal legeek horretarako xedatutakoari jarraituko diotela, edo, bestela, Eusko Jaurlaritzak erabaki edo erregelamenduzko arau-xedapen bidez zehaztu dezakeen Jokabide Kodeak xedatutakoari. Nolanahi ere, aplikagarriak izango dira

² JIMENEZ ASENSIO, Rafael: *Cómo prevenir la corrupción. Integridad y transparencia*, ed. Catarata, Madril, 2017; or.: 56

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52. eta 54. artikulua eta lehen xedapen gehigarria.

Kasuari Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotako aginduak aplikagarriak zaizkiola zalantzan jarri gabe, zeren eta hain zuzen ere beren oinarrizko edukiarengatik balio etiko orokor eta komunak baitituzte Estatuko erakunde publikoetan zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztientzat, txalogarria izango litzateke, transkribatutako zatian xedatuarekin bat, Eusko Jaurlaritzak bultza dezala “enplegu publikoari buruzko euskal legedian” aurreikuspen batzuk sartzea, zeinek aukera emango baitute langile guztiei zabaltzeko EJK-k kargudun publikoentzat ezartzen dituen balio eta printzipio etikoak, eta, kasua bada, bultza dezala transkribatutako apartatuak aipatzen duen Jokabide Kodearen onespina, bete beharreko edo saihestu beharreko jokabideen taula bat zehaztuz, zeinak funtzio publikoaren esparru berariazkora proiektatuko baititu 1/2014 Legeak erakunde osoarentzat ezartzen dituen balio eta printzipioak, hain zuzen ere EJK-k, zehazki, kargudun publikoentzat garatzen dituenak.

c) **EJKren aldi baterako aplikazioaren esparrua**

Kasuz kasu eman ditugun erabaki ugarietarako esker, EJKren denborazko aplikagarritasunari buruzko gure doktrina egituratuz joan gara.

Kodea sektore publiko autonomikoan zerbitzuak ematen dituzten kargu publikodunen jarduketarako jarraibide etikoa da. Haien ospe pertsonala zaintzera ez ezik, lan egiten duteneko antolamenduaren ispilu gisa, batez ere erakundeak herritarren aurrean duen irudia babestera ere bideratuta dago. Hortaz, argi dago haren eraginak, printzipioz, mugatu egin behar direla hartzaileek ofizialki beren erantzukizun publikoak —zeinetara lotzen baita dokumentuak zirriborratzen duen jokabiderako eredu etikoa— betetzen dituzten aldira. Horrek esan nahi du ezin dela proiektatu izendatu aurretik kargu publikodunak izan duen jardueran —partikularrean zein pribatuan—, eta ezin dela, ezta ere, hedatu kargu publikoa utzi ondorengo garaira.

EJK, izan ere, pentsatuta dago orientabidea eta jarraibidea emateko kargudun publikoen jokabideari, jardunean dauden aldira zehar. Horrenbestez, zalantzan jarri gabe hura inspiratzen duten balio eta printzipioek balio ahal dutela —eta balio behar dutela— bizitza publikoaren osotasunaren erreferentzia gisa, ez du zuzenean gidatu nahi etorkizunean erantzukizun publiko bat hartu ahal duten pertsonen edo herritar partikularren jokabidea, ez eta iraganean halakorik hartu dutenena ere.

Oinarrizko kontsiderazio horretatik abiatuta, gure erabakietan behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, 2013ko maiatzaren 28ko Gobernu Kontseiluak onetsitako EJK-k EHAA-n argitaratuz gero soilik sortzen ditu ondorioak, eta 2. puntuan zehaztutako kargu publikodunentzat —horrenbestez, kargu publikodunen katalogo gaurkotuan sartutakoentzat— soilik du indar loteslea, behin kargu publiko horiek legez kasu bakoitzerako ezarritako prozeduraren arabera izendatu direnean eta horiek Kodearekiko atxikipena formalizatu dutenean.

Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legeak ez du aldatu aplikagarritasun-eredu denborazko hori. Hain zuzen ere, lege horren 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan jasotzen dira "kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak": Legea indarrean sartu ondoren soilik dira lotesleak, eta 2. artikuluan zehaztutako kargu publikodunak soilik behartzen dituzte, behin kargu publiko horiek ofizialki izendatu direnean eta horiek Legearen 11. artikuluan aipatzen den atxikitze-sistemaren bidez Legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartzen dutenean.

EJKren aplikagarritasun subjektiboa legez ezarritako prozeduraren arabera izendatutako kargu publikodunaren atxikimendu pertsonala gertatzen den uneari lotzeko arauak salbuespen bakarra dauka: 15 d) apartatua jasotakoa.

Apartatu horrek ezartzen du ezen edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan ikertua izanez gero, kargu publikodunak EPBri jakinarazi behar diola egoera hori "kasu bakoitzean egoki iriztitako gomendioak eman ditzan", jarduketa judiziala "karguari dagozkion egiteko publikoak betetzeari lotutako gertaeretatik" heldu denean eta, halaber, izendapenaren aurreko "garrantzi publiko berezia duten ekintzekin" lotuta dagoenean.

Ikusten den bezala, horrela ezarritako araua oinarritzen da —gure ustez, zuzen oinarritzen da— halako auresuposamendu batean, zeina baita, eredugarritasunaren printzipioa kalteturik gerta daitekeela kargudun publiko bati zitazio judiziala egiten zaionean ikertu gisa deklaratu dezan bere erantzukizun publikoak betetzen ari zela egin dituen jarduketengatik, edo enplazamenduak zerikusirik duenean izendapenaren aurreko ekintza pribatuekin, baldin eta horiek, "garrantzi publiko berezia" izategatik, oihartzuna izaten ari direnean kargudunak gizartean duen irudian, herritarrek erakundeetan duten konfiantza baldintzatzeraino.

Eredugarritasunarena izan daiteke bizitza pribatua eta bizitza publikoa bereiztea zailen egin dezakeen balio etikoetako bat. Eta, horrenbestez, kargudun publiko baten izendapenaren aurretik ibilbide pertsonalak gizarteak kargudun horri buruz duen irudian eta herritarrei eskaintzen dien sinesgarritasunean eta konfiantzan eragin handiena duen printzipioetako bat da. Idatzi izan den bezala, "egunetik egunera agerikoago egiten zaigu Zizeronen "bizitzaren uniformetasunak" —horren barne

dela, gure sentiberatasun modernorako higuigarri bada ere, “bizitza pertsonala” deitutakoaren zuzentasuna— esfera publikoaren printzipio praktikoa eta egituratzaile baten gisara funtzionatzen duela, zeren eta erabakigarria baita herritarrek politikoengan duten konfiantza sortzeko [...] Politikariak ahaleginak egingo ditu irudi erakargarri bat sortzeko, baina azkenean, harengan kontatzen duena da “ereduarekin predika dezala”, zeren eta esparru moralean eredu emanek baizik ez baita “predikatzen” modu sinesgarrian, eta ez hitzaldi soilekin, zeren eta adibidearekin lotuta ez dauden hitzaldiek sinesgarritasunik eta egiantzik txikiena ere ez baitute”³.

2/2017 Erabakian EJKren aplikagarritasun subjektiboaren hasiera determinatzeko ezarritako doktrinak haren amaiera determinatzeko ere balio behar zuela esan genuen; aplikagarritasuna, logikoa denez, kargudun publikoen kargu-uztearekin lotuta dago-eta. Erabakiaren 4. puntuan baieztatu genuen kontsiderazio horiek “uztatu egiten dutela batetik, Etika eta Jokabide Kodearen indar loteslea eta, bestetik, kargu publikoaren izendapen ofiziala eta kode horrek aldarrikatzen dituen balio, printzipio eta jokabideekiko atxikimendua. Eta, bistan denez, kontsiderazio horiek halaber balio dute kargua uzten denerako. Kargu-uzteak, behin organo eskudunak hala erabakita eta EHAAn argitaratuta, berekin dakar funtzioak egikaritzeari utzi diona Kodearen “hartzaile” direnen kolektibotik kanporatzea berehala eta automatikoki, eta, ondorioz, Kode Etikorako Batzordearen jardueraremu subjektibotik kanpo geratzea”.

Arau horrek, ordea, salbuespenak ere eduki behar ditu. 2017ko 1. eta 2. Erabakietan baieztatzen dugun bezala, salbuespena izango da ukitutako pertsonen bermeak zaintzearekin eta irudi egokia zaintzeko eskubide legitimoarekin lotutako ikuspuntutik hura gomendagarri gertatzen denean.

Horixe gertatu zen, zalantzarik gabe, 1/2017 Erabakian erantzun genuen kasuan. Orduan, Etika Publikorako Batzordeak espresuki eman zuen iritzia salaketan agertzen zen kargu publikodunaren jokabidearen kalitate etikoari buruz, pertsona horren kargu-uztea jada EHAAn argitaratuta bazegoen ere. Baina hala egin zuen, kontuan hartuta gero kargua utzi zuenak bazuela bere kontra hirugarren batek aurkeztutako salaketaren berri —salaketa hori EPB honi helarazi zitzaion—, eta alegazioak ere aurkeztu zituela, artean kargu publikodun gisa jardunean zegoela. Ondorioz, pentsa zitekeen nahiago zuela Etika Publikorako Batzordeak espresuki iritzia eman zezan —egindako alegazioei (ere) erantzuteko—, inhibitzea baino, zeinak bide emango baitzuen susmatzeko kargua utzi zuen pertsonak ez zuela argudiorik bere jardunaren garbitasun etikoa defendatzeko.

2/2017 Erabakiaren bidez ebatzitako kasuan, ordea, ikusten dugu arrazoirik ez zegoela aipatutako salbuespenak operatzeko, zeren eta salaketa erregistratua baitzen

³ GOMÁ LANZÓN, Javier: *Ejemplaridad pública*, Taurus arg., Madril, 2014; or.: 348 eta 349.

jokabidea zalantzan jartzen zitzaioneko kargudunaren kargu-uztea gertatu eta zenbait hilabete geroago. Beren erantzukizunetatik kendu diren kargu publikodunen aurka formulatutako salaketak onartzea eta modu sistematikoan izapidetzeak zera eragingo luke: EJKren indar loteslea proiektatzea EAEko sektore publikoko kargu publikoetara ez ezik, iraganean kargu publikoak izandako pertsona guztiengana ere. Horrek, bada, ez du zentzurik integritate instituzionaleko sistema batean, zeinak bilatzen baitu politikaren zentzu etikoa orain eta hemen bermatzea eta Euskadiko herritarrek beren egungo erakundeetan duten konfiantza indartzea.

10/2017 Erabakiaren bidez ebatzitako kasuan, halere, lehenengo aldiz aurre egin genion kargu publikodun batek egin zigun kontsulta bati; hain zuzen ere, kontsulta egin zigun bere izendapen ofiziala egin zen unetik —EHAAAn argitaratutako kasuko dekretuaren bidez— EJKri formalki atxiki zitzaion unera arte igarotako tarteko aldian.

Erabakiaren epaitzan ez zen gaiaren sakoneko aldea aztertu, argudiatuz kontsulta egin zen unean interesdunak “oraindik ere EJKren jarraibideekiko bere atxikimendu pertsonala eta banakakoa egin gabe zegoela”. Halaber, ukitutako kargudun publikoari gogorarazi zion ezen, EJKren 18. apartatuko 1. eta 5. puntuetan xedatutakoari jarraituz “ kargu publikodunaren izendapen berriak egiten badira, ezinbestekoa izango dela kargu berri horiek, banan-banan, Kodearen edukiari atxikitzea”, halako moduz non atxikipen hori ez bada behar den garaian eta moduan ematen, ulertuko baita “interesdunak ez duela Etika eta Jokabide Kodea betetzen, eta, jarraian, luzamendutan ibili gabe, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, jarduketak instruitzeari ekingo zaio Etika Publikorako Batzordean. Batzorde horrek, entzunaldiaren izapidea egin ondoren, eta, beharrezkoa bada, arduradunari proposatuko dio kontratua desegin dadila edo interesdunak kargua utz dezala”.

11/2017 Erabakian gai bera aztertu genuen, baina orduan, salaketa baten harira izan zen; salaketa horrek, ukitutako kargu publikoduna EJKrekiko atxikipena formalizatu ondoren izan bazen ere, aipamena egiten zien izendapenetik atxikipenera bitarteko aldian gauzatutako jokabideei. Aipatu berri dugun Erabakiarekin bat, bigarren kasu honetan, Erabakiak jaso zuen ez zela bidezkoa berriazko pronuntziamentu bat egitea jokabidearen zilegitasun etikoari buruz, hori EBPrekin ahalmenetatik haratago zihoala iritzita.

Zintzotasunez diogu ezen, EJK eskuan, bestelako konponbiderik ezin zitzaiela eman bi erabaki horietan planteatutako gaiak. Alabaina, erabaki horiek ez gintuzten erabat asebeten, zeren eta bitxi gertatzen baita antolakundearen instantzia gorenak bere karguen jardueraren oinarri gisa ezarri dituen postulatu etikoak 15 egunez geratzea etenda. Epe hori, hain zuzen, EJKn jasota dago, eta zera adierazten du: zenbat egun

igaro daitezkeen, gehienez, kargu publikoak izendatzen direnetik Kode Etikoari atxikitzen zaizkionera arte.

Hori dela eta, Jaurlearitzari gomendatzen diogu azter dezan aukerarik ba ote dagoen EJKn aurreikuspenen bat jasotzeko, zeinak ez duen nahitaez ekarriko kargu publikodunek kodearekiko atxikipena formalizatzeko ezarritako epea laburtzea — badakigu, jakin, kargu publiko baten izendapena burutzeko legez ezarritako izapideak ezin direla beti bete denbora-tarte labur batean— baina eragotziko duena izapide hori bete gabe duten kargu publikodunak materialki salbuetsita egotea kodearen postulatuak betetzetik.

d) Telebistako programetan, eztabaidetan edo hizketaldietan parte hartzeari buruzko lehen erabakia

10/2017 eta 11/2017 Erabakietan, aukera izan dugu lehenengo aldiz gure iritzia emateko EJKren alderdi berritzaileenetako bati buruz: kargu publikodunek komunikazio publikoaren eremuan eduki beharreko jarduketa-esparruari buruz, hain zuzen.

Horietako lehenengoan esan genuen bezala, EJK-k 15. apartatuko hainbat puntutan ezartzen du kargu publikodunek zein baldintza bete behar dituzten “irratiko hizketaldietan”, “telebistako eztabaidetan” edo “edozein hedabidetako eztabaidetan” parte hartzeko, bai eta “hedabideetan, gizarte-sareetan edo Internet bidez” iritziak emateko ere. Horiek guztiak dira, hain zuzen, Kodeak “Eredugarritasunaren” eremuan ezartzen dituen jokabide-kanonen parte.

EJK-k gai honen gainean ezartzen duen araudiak, labur-labur azalduta, araubide bikoitza aurreikusten du:

- A) Kargu publikodunek beren kudeaketa publikoki komunikatzean egiten dutena, kudeaketa hori hedatu edo ezagutzera emateko asmoz, beren erantzukizun publikoko dimentsio bat gehiago eta beren funtzioak betetzeko betebeharraren eduki bat gehiago izanik.
- B) Komunikabideetan noizbehinka parte hartzean egiten dutena, beren kudeaketa publikoki komunikatzearekin eta beren erantzukizunak gizartean hedatzearekin harreman zuzenik eduki gabe.

Horietatik lehenengoari dagokionez, kargu publikodunek beren kudeaketa publikoki komunikatzen dutenean, EJK-ren arabera, bi jarraibide bete behar dira: doakotasuna eta erakundearekiko leialtasuna.

Bi alderdi horien oinarrian, logikoa denez, ideia hau dago: garatutako kudeaketa publikoki komunikatzen da, herritarrei horren berri eman eta, hala, azterketa publikoa eta kontu-ematea errazteko, eta, ez, ordea, beren kargu publikoaren erantzukizun-eremutik kanpoko eginkizun gisa, baizik eta legez esleituta dauzkan zereginen artean beste eduki bat gehiago bailitzan. Eta kargua betetzeak berezko duen zerbait den neurrian, ezin da jarduera horrengatik ordainsari osagarririk jaso, eta arduradun publikoa ezin da hartan aritu zerbitzuak ematen dituen eta ordezkatzeko duen erakundetik kanpo.

Lehenengoa —doakotasuna— EJK-ren 15 k) apartatuak ezartzen du; honela, hain zuzen: "Betetzen duten karguaren ondorioz liburutan, aldizkaritan, egunkaritan eta beste edozein hedabideetan ekarpenak egiteagatik ez dute inolako ordainketarik onartu behar, baldin eta ekarpen horiek beren funtzioak betetzeari lotuta badaude".

Bestalde, erakundearekiko leialtasuna ezartzen du 15 l) apartatuak. Horren arabera: "Kargu publikodunek, Gobernuaren zein sailen politikak hedabideetan eta gizarte-sareetan zabaltzeko, dagozkien erakundeetako prentsa-kabineteak erabili behar dituzte, lehentasunez".

Arau horren arabera, garatutako kudeaketarekin lotutako komunikazio publikoaren xedea eta edukia ez dira kargu publikodun bakoitzak nahi duen bezala definitu edo eratu ditzakeen alderdiak; aitzitik, erakundeak berak diseinatu behar ditu, bere izenean jarduten baitu eta bere orientazioak bete behar baititu. Horrenbestez, EJK-k prentsa-kabineteak aipatzen ditu, horiek baitira, printzipioz, erakunde bakoitzaren komunikazioak bete behar dituen oinarriko lerroak, era ofizialean, ezartzeko arduradunak. Kargudunak bere kudeaketa publikoki komunikatzean helarazten duen informazioa ez dagokio berari, baizik eta berak ordezkatzeko duen erakundeari.

Garatutako kudeaketarekin lotutako komunikazio publikoaz kanpo komunikabideetan parte hartzen bada, EJK-k kasu horretan bete behar den araudia ezartzen du, lau jarraibide oinarri hartuta: baimena, doakotasuna, erakundearekiko leialtasuna eta koherentzia.

Jarraian azalduko diren ildoetan labur-labur aztertuko dugu horietako bakoitza.

Lan egiten den erakundearen baimena edukitzeko beharrezana j) puntuan agertzen da. Horren arabera: "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako eta bere Sektore Publikoko kargu publikodunek hedabideetan parte hartzeko [...] Gobernuak edo kargu publikodunaren nagusi hierarkikoak baimena eman behar du alde zuzenetik, berariaz zein tazituki".

Arau horrek honako salbuespen hau ezartzen du: "Gobernuan duen eskumen-alorrarekin zerikusirik ez duten gaiei buruzko elkarrizketa zein erreportajeetan izan ezik".

Bestalde, nahiz eta transkribatutako arauak dioen kargu publikodunak “berariaz zein tazituki” lortu behar duela baimena alde zuzenetik Gobernuaren edo kargu publikodunaren nagusi hierarkikoaren eskutik, bateraezintasunen gainean indarrean dagoen araudiak baimen horrek berariazkoa izan behar duela dio; eta, hain zuzen, EJK-ren 14 b) apartatuak kargu publikodunen jokabide etikoaren alderdi hori jorratzean bete-betean aipatzen du araudi hori.

Hori horrela, gaur egun, gai honen gainean “aplikatu beharreko legedia” dagoeneko aipatu dugun JKIGL da, eta, haren 14 b) apartatuari jarraikiz, hemen interesatzen zaigun gaiaren ondoretarako, kargu publikoa betetzea bateragarria da noizbehinka “komunikabideetako mahai-inguru nahiz saioetan” parte hartzearekin, “baldin eta parte-hartze hori ez bada lan-harreman baten edo zerbitzuak emateko kontratu baten ondorio”.

Hala aitortutako bateragarritasunak ezinbestean bete beharreko denbora-muga bat du -60 orduko esku-hartzea urte natural bakoitzeko-, eta, edonola ere, Legean bertan aurreikusitako prozedurari jarraikiz eskatu eta izapidetu behar da. Horretarako, kargu publikodun interesdunak, agindu horretan bertan ezarritakoaren arabera, honako hau aurkeztu beharko du: “lan-harremanik edo zerbitzu-prestaziorik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentua (..), baita zer jarduera emango den eta zenbat ordu emango diren ere”.

Kargu publikodunak, komunikabideetan parte hartzeko, Gobernuaren edo nagusi hierarkikoaren berariazko baimena eskuratzeko gain, doan aritu beharko dira. Halaxe ezartzen du EJK-k 15 g) apartatuan, honakoa dionean: “kargu publikodunek ezezkoa eman behar diote zuzenean zein zeharka nolabaiteko ordainsari edo konpentsazio ekonomikoa dakarten irratiko hizketaldietan edo telebistako eztabaidetan parte hartzeari”.

Arduradun publikoak lan egiten duen erakundearekin bete behar duen leialtasun hori dakar, bestalde, EJK-ren 15 h) apartatuak, eta, horren arabera, “kargu publikodunek edozein hedabidetako eztabaidetan eta gogoeta-prozesuetan parte hartu ahal izango dute, bai eta ekitaldi publikoetan ere, Gobernuaren berezko jarrerak defendatzeko”.

Ondorioz, horixe izan behar da kargu publikodunek komunikabideetan parte hartzean bete behar duten oinarrizko araua: beren esku-hartzeak Gobernuaren berezko jarrerak defendatzeko izango dira, eta ez beren ikuspegi propio eta pertsonalak adierazteko, eta, are gutxiago, Gobernuaren posizioak eraso edo kritikatzeko.

Desadostasun publikoa eta kritika irekia ez dira inola ere onartuko, arau etikoaren kontra baitoaz, azken horrek ordezkatzen duen erakundearekiko leialtasunez jokatu beharra adierazten baitu. EJK zehatza da gai horretan, eta, 15 i) apartatuaren

arabera, “nolanahi ere”, kargu publikodunek “ez dute adierazi behar Gobernuaren jarrera politikoeikiko desadostasunik, eta jarrera horiek ez dituzte argi eta garbi kritikatu behar hedabideetan, gizarte-sareetan edo Internet bidez”.

Salbuespen-kasuetan baino ez zaie baimentzen kargu publikodunei Gobernuaren berezko jarreretatik “aldentzea”.

Baina EJK-ren 15 h) apartatuak gai hau jorratzean erabilitako adierazpen horrek - “aldentzea”- agerian uzten du kargu publikodunei Gobernuaren iritziekin guztiz bat ez datozen epai publikoak egiteko orduan ematen zaien jardun-marjina estua. Izan ere, ez da gauza bera Gobernuaren iritzien “desberdinak” diren iritziak ematea, edo “kontrakoak” diren iritziak ematea. Lehen horiek zilegi izan daitezke, EJK-ren esparruan, muga oso estuen barruan; bigarrenak, aldiz, guztiz debekatuta daude kargu publikodunentzat.

Iritzi “desberdinak” direla eta, EJK-ren 15 h) apartatuak honako hau dio: “Baina [kargu publikodunak] Gobernuaren jarrera horietatik puntu zehatzen batean aldentzen badira [puntu hori funtsezkoa ez bada], ez dute parte hartuko, eta bestela, adierazi behar dute iritzi horiek pertsonalak direla, eta horrenbestez, Gobernuaren politikarekin zerikusirik ez dutela”. Ikusten da, beraz, argi eta garbi apartekoa eta salbuespenezkoa den kasu bati buruz ari gara. Ondorioztatu daitekeenez, EJK bete nahi bada, transkribatutako aginduan aipatzen den “aldentze” horrek hiru baldintza bete beharko ditu:

- a) “Noizean behin” egin behar da, hau da, ez egunero, ez erregularitasunez, ez behin baino gehiagotan.
- b) “Puntu zehatzen bat” izan behar du mintzagai, eta ez eztabaidatutako gaiaren funtsa, ez eta puntu bat baino gehiago ere.
- c) Gai horrek “ezin du funtsezkoa izan”.

Hiru baldintza horiek betetzen ez badira, kargu publikodunak ezin du Gobernuaren berezko jarreretatik “aldendu”. Eta, baldintzak betetzen badira (noizbehinka baino ezin da gertatu, esan bezala), kargu publikodunek “ez dute parte hartuko”, eta, bestela, “adierazi behar dute iritzi horiek pertsonalak direla, eta horrenbestez, Gobernuaren politikarekin zerikusirik ez dutela”.

Leialtasun-printzipioarekin hertsiki lotuta, EJK-k koherentzia pertsonalaren printzipioa ere jasotzen du.

Aurreko puntuetan ere ikusi dugu EJK-k zehatz-mehatz debekatzen duela Gobernuaren berezko jarrerak publikoki kritikatzeko edo horiekiko desadostasunik adieraztea, eta Kodean zorrotasun handiz dago jasota kargu publikodunak horietatik “aldentzeko” aukera duela. Ikuspegi zorrotz horrekin bereziki lotuta, EJK-ren 15 i) apartatuak honako hau ezartzen du, koherentzia-printzipioaren arabera: “Kargu publikoaren titularrak” Gobernuaren berezko posizioekiko

desadostasun horri eusten badio, “askatasun ideologikorako eta adierazpen-askatasunerako oinarrizko eskubidean babestuta, dimisioa aurkeztu beharko du, koherentzia instituzionalari euste aldera, eta kargutik kentzea onesteko eskumena duen organoak erabakiko du dimisio hori onartu behar den edo ez”.

Azken finean, inor ez dago behartuta erakunde baten baitan geratzera, baldin eta erakunde horren planteamenduak baztertzen baditu, eta, beraz, ezin badu saihestu ideia horiekiko desadostasuna publikoki adieraztea eta komunikabideetan era irekian kritikatzeari.

ESTATISTIKA
ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA (EPB)

2017: 11 GAI

3 KASU SALAKETAKOAK	KASU 1 JARDUERAKO INTERES- GATAZKARI BURUZKOA; GATAZKA BADAGO ETA, HORTAZ, ABSTENTZIORAKO BETEBEHARRA	6 KASU, NON EZ DEN EJK URRATZEN	KASU 1 EJK-ri EPE BARRUAN ATXIKITZEKO EBPk EZARRITAKO BETEBEHARRARI BURUZ
GAIA: 1/2017	GAIA: 3/2017	GAIA: 4/2017	GAIA: 10/2017
GAIA: 2/2017		GAIA: 5/2017	
GAIA: 11/2017		GAIA: 6/2017	
		GAIA: 7/2017	
		GAIA: 8/2017	
		GAIA: 9/2017	

A) GAI-MOTAK	
I.	KARGU PUBLIKODUNEK BEREN ZEREGINAK BETETZEN EGINDAKO JARDUKETEI BURUZKO GAIK (3)
GAIA: 1/2017	SALAKETA
SALAKETA ARTXIBATU DA. EZ DA URRATU EJK.	
GAIA: 2/2017	SALAKETA
SALAKETA EZ DA TRAMITERA ONARTU. EZ DA URRATU EJK.	
GAIA: 11/2017	SALAKETA
EBPk EZ DU ERABAKIRIK HARTU, ESLEITUTA DITUEN AHALMENAK GAINDITZEN DITUELAKO KASU HORREK.	
II.	INTERES-GATAZKARI BURUZKO GAI (1)
GAIA: 3/2017	ENPRESA BATEKIKO KONTRATAZIOAN INTERES-GATAZKA BAT GERTATZEKO AUKERA
GATAZKA DAGO. ABSTENTZIORA JO BEHAR DA EDO ARDURAK UTZI NAGUSI HIERARKIKOAREN EDO UKITUTA EZ DAGOEN SAILEKO BESTE KARGU PUBLIKODUN BATEN ESKU. EZ DA URRATU EJK.	
III.	KARGU PUBLIKODUN BATEN INPUTAZIOARI BURUZKO GAIK (5)
GAIA: 4/2017	GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA
EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
GAIA: 5/2017	GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA
EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
GAIA: 7/2017	GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA
EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
GAIA: 8/1017	SEKTORE PUBLIKOKO KARGUDUN PUBLIKO BATEK DEKLARATZEKO ZITAZIOARI BURUZ
EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
GAIA: 9/2017	GOI-ZUZENDARITZAKO LANGILEEN INPUTAZIOA
EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA	
IV.	JARDUERAK GARATZEKO BATERAGARRITASUNARI/BATERAEZINTASUNARI BURUZKO GAIK (2)
GAIA: 6/2017	JARDUNALDI, MINTEGI, IKASTARO, PRENTSA-ARTIKULU, SOLASALDI ETA HEDABIDEETAKO PROGRAMETAN PARTE HARTZEA
BATERAGARRIA DA, DENBORAN ARRAZOIZKOA DENAREN BARRUAN EGITEN DENEAN EZ DA URRATU EJK.	
GAIA: 10/2017	EZTABAIDA ETA HIZKETALDI POLITIKOKO IRRATSAIO BATEAN PARTE HARTZEARI BURUZ
KONTSULTAREN UNEAN, GOI-KARGUDUNAK EZ DAUKA FORMALIZATUTA EJK-REKIKO ATXIKIMENDUA EBPk GOGORARAZTEN DU EJKri EZARRITAKO EPEAN ATXIKI BEHAR ZAIOLA	

B) PLANTEATUTAKO GAIAK ETA HARTUTAKO ERABAKIEN ILDO OROKORRAK

I

KARGU PUBLIKODUNEK BEREN ZEREGINAK BETETZEN EGINDAKO JARDUKETAK (3)

GAIA: 1/2017

2016ko azaroaren 22an, interesdunak, zeina karrerako funtzionarioa baita, idazki bat erregistratu zuen, Etika Publikorako Batzorde (EPB) honi zuzendua; hartan jakitera ematen zuen irailaren 20an idazki bat “aurkeztua” zuela, “(...) lanpostua betetzeko Hezkuntzako deialdian gertatutako egitate batzuk” salatzeke; izan ere, hartan “izangai gisa parte hartu zuen”.

Salaketa-idazkiari erantsi zaion gertaeren zerrendan adierazten da (...) Saileko zenbait pertsonen eta prozedura kudeatzeko ardura duen Balorazio Batzorde Orokorreko zenbait kidek azpibatzordeko kide bat [egia esan, Batzorde Teknikoa du izena organo horrek, deialdi hori aurrera eramateko (...) zuzendariak emandako Ebazpenaren bosgarren eta seigarren oinarrietan xedatutakoaren arabera] (...) izangaiaren alde egitera “behartu” zutela, gainerako izangaiak kaltetuz, eta, bereziki, salaketa egin duena. Izan ere, azpibatzordeko kide hark prozedura horretan parte hartu zutenek egindako txostenak ebaluatu behar zituen. Kontaketa horretan zehazten da, halaber, aipatutako pertsona horiek “mehatxatu” egin zituztela haien nahietara “behartu” nahi zituztenak, esanez kendu egingo zituztela azpibatzordetik eta haiek egindako eskaerak onartuko zituzten beste batzuk izendatuko zituztela.

ERABAKIA:

Ez onartzea (...) jaunak/andreak izandako jarduerari buruz (...) jaunak/andreak aurkeztutako salaketa, langile publiko bat delako eta, horrenbestez, EJKren mende ez dagoelako, eta, ondorioz, EPB honen jarduera-eremu subjektiboaren barruan sartzen ez delako.

Artxibatzea (...) jaunak/andreak (...)ko zuzendari izandako (...)jaunaren/andrearen jarduerari buruz aurkeztutako salaketa, dagoeneko ez delako EJKren aginduei atxikitako kargu publiko baten titular, baina, betiere, argi adierazita, salaketa-egileak (...) jaunaren/andrearen kontra egindako akusazioak eta (...) jaunak/andreak salaketa horien aurka aurkeztutako alegazioak xeheki aztertu eta egiaztatu ondoren, EPB honek ez duela ikusten haren jokaeran EJKn jasotako balio, printzipio eta arauak

urratu dituela esateko inolako zantzurik. Aitzitik, egiaztatzen du jokamolde arduratsu eta deialdiaren aurreikuspenekin bat datorrena izan duela, eta administrazioko jardunbide onak betetzen dituena.

(...)ko zuzendari (...) jaunaren/andrearen jarduketa dela-eta (...) andreak aurkeztutako salaketa izapide gehiagorik gabe artxibatzea, interesdunak goitik behera ukatu duelako egin zaion akusazio ahul eta egiaztatu gabea.

SALAKETA ARTXIBATU DA. EZ DA URRATU EJK.

GAIA: 2/2017

Mezuan esaten duenez, “2013. urtetik”, salatzaileak behin baino gehiagotan jakinarazi die sailburuorde biei “(...) buruak (...) oparitzen dizkiela funtzionario batzuei, nahieran erabil ditzaten, erabilera kontrolatu gabe eta zerbitzu-beharrik izan gabe”.

Horren aurrean, salaketa-egileak Etika Publikorako Batzorde (EPB) honi jakinarazi dio goian aipatutako sailburuordeek “ezer ere ez dutela egin” kexak egiaztatzeko edo gezurtatzeko.

ERABAKIA:

Tramitera ez onartzea (...) jaunaren kontra egindako salaketa, salaketa erregistratu zenean zenbait hilabete igaroak baitziren (...) jaunak sailburuorde kargua utzi zuenetik. Hori guztia ezertan eragotzi gabe erabaki honen ebazpen-zatiaren 7. puntuaren sartutako kontsiderazioak.

Etika Publikorako Batzordeak ez du ikusten arrazoirik (...) jaunaren/andrearen jokabidearekin Etika eta Jokabide Kodearen 6. atala urratu dela esateko. Izan ere, egokiro bideratu zituen jasotako kexak (...) administrazio-unitatean (...) ustez irregularki erabili izanari buruzkoak: txostenak lortu zituen, datuak jaso, azalpenak eskatu eta ikerketak egin, eta mendean zituenei adierazi zien kontrastatu egin behar dituztela (eta behar izanez gero, berrikusi) zerbitzu publikoaren eskakizunekin bat ez zetozen jarduera-irizpideak, eta interes orokorrari lehentasuna eman behar diotela. Haren jardueran ez da ondorioztatzen inolako ulermen edo tolerantziarik egon denik haren mendekoei kexetan egozten zaizkien jokabideekiko, eta ezin da ikusi integritate, inpartzialtasun eta objektibotasun printzipioen kontrako jokabideak babestu nahi direnik.

SALAKETA EZ DA TRAMITERA ONARTU. EZ DA URRATU EJK.

GAIA: 11/2017

2017ko azaroaren 8an interesdunak mezu elektronikoko bat bidali zuen Etika Publikorako Batzorde honen Idazkaritzara. Horren bidez "kontsulta" bat egin zuen honi buruz: "Eusko Jaurlaritzako (...) zuzendariaren jokabideaz, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen Etika eta Jokabide Kodea urratu duelakoan".

“Kontsulta”ren idazkia, 2017ko urriaren 8ko hori, azaroaren 9ko mezu elektronikoko batekin ordezkatu zen. Eduki bera zuen, baina hasieran jaso zen data zuzendu zen bertan, eta azaroaren 8a jarri zen jatorrizkoaren ordezkari.

“Kontsulta”ren egileak bere idazkian baieztatzen du ezen, Eusko Jaurlaritzaren menpeko egitura administratiboan betetzen den karguaren indarrez —(...) zuzendaria— (...) jaunak “Kodean ezarritakoa betetzeko betebeharra duela”. Eta xede horretarako gogorarazi du, Kodearen 15 h) eta i) letretan ezarritakoaren arabera, Kodean jasotzen diren manuen mende dauden kargu publikoek hedabideetako eztabaidetan parte hartu ahal izango dutela, baina "Gobernuaren jarrerak defendatuz" eta “Gobernuaren jarrera politikoei desadostasunik” adierazi gabe eta “jarrera horiek [...] argi eta garbi kritikatu” gabe.

ERABAKIA:

Salaketak aipatzen dituen adierazpenak egin zirenean (2017ko urriaren 10ean), (...) jaunak oraindik ez zuen formalizatu, xede horretarako ezarrita dagoen epearen barruan egonik, EJKren manuetara pertsonalki eta banaka atxikitzeko izapidea, eta, beraz, ez da berriazko adierazpenik egingo bere jarreraren zilegitasun etikoaren gainean, EPB honek esleituta dituen ahalak gainditzen baititu horrek.

Etorkizunean, salaketa honen xede den kargu publikoak —edo EJKren manuetara benetan atxikitzeko betekizunak betetzen dituen beste edozeinek— komunikabideetan parte hartzen badu eta parte hartzeko moduak 10/2017 Erabakian finkatu genuen doktrinarekin bat egiten ez badu, interesdunak —edo beste edozeinek— salaketa jarri ahal izango du, eta, jakina, EPB honek behar bezala izapidetuko du salaketa hori.

EBPk EZ DU ERABAKIRIK HARTU, ESLEITUTA DITUEN AHALMENAK GAINDITZEN DITUELAKO KASU HORREK.

INTERES-GATAZKARI BURUZKO GAIA (1)**GAIA: 3/2017**

2017ko urtarrilaren 13an, (...) zuzendaria den interesdunak kontsulta egin zion EBP honi (...) SL enpresarekiko kontratazioan balizko interes-gatazka bat egoteari buruz.

(...) zuzendaritzak, zeina aurreko legegintzaldian (...) Sailari atxikita egon baitzen — gehitzen du kontsultaren egileak— “azken aurrekontu-ekitaldian (...) SL enpresarekin zenbait laguntza teknikotarako kontratuak egin ditu”.

Interesdunaren ustez, interes-gatazka egon liteke, zeren eta “gaur egun, (...) Zuzendaritzaren asmoa baita enpresa horrek ematen dituen zerbitzuekin jarraitzea, Zuzendaritzak dituen helburuak betetze aldera”; aipatutako sozietatea —gehitzen du— “hiru bazkidek osatzen dute, eta horietako birekin bigarren mailako ahaidetasuna dut”.

ERABAKIA:

Interesduna (...) SL zuzenean edo zeharka ukitzen duen edo hartan eragina duen prozedura orotan parte hartzetik abstenitu beharko da; izan ere, hartako bi bazkiderekin bigarren mailako ahaidetasuna dauka. Interes-gatazkek saihesteko beharrari erantzuten dion kautelazko neurri bat da hori, zeina, bidenabar, komenigarria baita partzialtasuneko edo aldekotasuneko susmo edo zalantza oro uxatzeko.

EJKren 11.3 apartatuko seigarren puntuan ezarritakoaren arabera, “nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte beren ardurak, edo, bestela, egoera horietakoren batean ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodun baten esku”.

GATAZKA DAGO. ABSTENTZIORA JO BEHAR DA EDO ARDURAK UTZI NAGUSI HIERARKIKOAREN EDO UKITUTA EZ DAGOEN SAILEKO BESTE KARGU PUBLIKODUN BATEN ESKU. EZ DA URRATU EJK.

**KARGU PUBLIKODUN BATEN INPUTAZIOARI BURUZKO
GAIK (5)**

GAIA: 4/2017

2017ko martxoaren 14an, Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara posta elektronikoz igorritako mezu batean, interesdunak, Eusko Jaurlaritzako zuzendaria bera, irizpena eskatu zion organo honi Instrukzio Epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Mezu elektroniko labur baten bidez, Etika Publikorako Batzordeari jakinarazi zion epaitegi horren idazki bat jaso zuela martxoaren 10ean, (...) prozeduran, (...) sindikatuak jarritako salaketa bat dela-eta. “Salatu diren gertakariak prebarikaziotzat jo dira, eta zerbitzu-eginkizunak (...)ko kideen funtzioei izendatzerakoan gertatu dira [(...) Erregelamenduan jasotzen den moduan egin behar da izendapena].” Epaitegian (...) egunean agertzeko deia egin zitzaion.

ERABAKIA:

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion zitazioak ikertu gisa ageri den aurretiazko eginbideen eremuan.

Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa irekitzea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

Baldin eta prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, Etika Publikorako Batzordeak kautelazko neurri hau gomendatzen du: kargu publikoa kargutik kentzea, Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalean eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.

**EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO,
ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA
GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA**

GAIA: 5/2017

2017ko martxoaren 15ean, Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara igorritako idazki batean, (...) interesdunak, Eusko Jaurlaritzako zuzendaria bera, irizpena eskatu zion organo honi Instrukzio Epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Idazkian, Etika Publikorako Batzordeari jakinarazi zion Instrukzio Epaitegiaren idazki bat jaso zuela fax bidez, 2017ko martxoaren 14an, epaitegi horretan irekitako atestatu bati buruz —zeina zegokion eginbidean ireki baitzen—, eta zitazioa egin zaiola “ikertu gisa, egitate batzuen erantzule den aldetik ondasun publikoak – itxuraz– bidegabe erabiltzeagatik.”

ERABAKIA:

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion zitazioak ikertu gisa ageri den aurretiazko eginbideen eremuan.

Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

Baldin eta prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, Etika Publikorako Batzordeak kautelazko neurri hau gomendatzen du: kargu publikoa kargutik kentzea, Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalean eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.

EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA

GAIA: 7/2017

2017ko maiatzaren 29an Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara igorritako idazki batean, interesdunak, Eusko Jaurlaritzako zuzendaria bera, irizpena eskatu zion organo honi (...)eko Lehen Auzialdiko ZULUPean tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Idazkiari dagokion zitazio-zedula erantsi zaio, eta bertan eskatzen zaio interesdunari Epaitegiaren egoitzan agertzeko "ikertu gisa entzuna izateko, Prozedura Kriminalaren Legearen 486. artikuluan ezarritakoarekin bat, itxuraz delitu izan daitezkeen bidegabeko jabetze, agiri publikoak faltsutze eta bidegabeko eralgitze egitateengatik".

ERABAKIA:

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu 1. auzialdiko eta instrukzioko ZULUPek egiten dizkion errekerimenduak, ikertu gisa deklaratzeko zitazioetako aurretiazko eginbideen eremuan.

Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeke autoa ematen duen arte.

Baldin eta prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, Etika Publikorako Batzordeak kautelazko neurri hau gomendatzen du: kargu publikoa kargutik kentzea, Etika eta Jokabide Kodearen 15d) atalean eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.

**EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO,
ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA
GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA**

GAIA: 8/2017

2017ko uztailearen 13an Etika Publikorako Batzordearen Idazkaritzara igorritako mezu elektroniko batean, interesdunak, (...)ko zuzendari nagusiak, irizpena eskatu zion organo honi, zitazioa bidali ziotelako probintziako polizia-etxean deklaratzeko eta dokumentazioa eskatu ziolako (...) kontrako (...) polizia taldeak, Instrukzioko Epaitegi Zentralak erakunde kriminaleko kidea izatearen delitu bategatik, jabetza intelektualaren kontrako delitu bategatik eta faltsutasun delitu bategatik irekitako prozeduraren (...) pieza bananduarekin lotuta.

ERABAKIA:

Interesdunak jarraitu behar du Justizia Administrazioarekin kolaboratzen eta Instrukzioko Epaitegi Zentralak (...) pieza bananduarekin loturik eginiko errekerimendu guztiak betetzen.

Ikusita zitazioa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa irekitzea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

Baldin eta prozedura horren barruan egiten ari diren jarduketa judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, EPBk kautelazko neurri hau gomendatzen du: kargu publikoa kargutik kentzea, EJKren 15 d) atalean eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.

EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA

GAIA: 9/2017

Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara posta elektronikoz 2017ko irailaren 11n igorritako mezu batean, (...)ko zuzendari den interesdunak kontsulta egin zion Etika Publikorako Batzordeari (...)e)ko (...)n tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Mezu elektroniko horri dagokion zitazio-zedularen kopia erantsi dio kontsultaren egileak; zitazio-zedula horretan, interesdunari eskatzen zaio epaitegiaren egoitzan agertu behar duela, “ikertu gisa entzunda izateko, Prozedura Kriminalaren Legearen 486. artikuluan xedatutakoaren arabera, antza diru-laguntzen iruzurreko delitua diren egitateen erantzule gisa”, (...)k aurkeztutako salaketa bat dela eta.

Aurrekoari zera gaineratzen dio: “Jarraian aipatuko ditudan egitateek ez daukate inolako zerikusirik (...)ko zuzendari gisa egun daukadan erantzukizunarekin”. 2011. urtekoak dira, “(...) SLko kudeatzaile nintzen garaikoak”.

ERABAKIA:

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu (...)e)ko (...)k igortzen dizkion zitazioak ikertu gisa ageri den aurretiazko eginbideen eremuan.

Ikusita zitazioa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren gogoetak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duenera arte.

Baldin eta prozedura horren barruan egiten ari diren jarduketa judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, EPBk kautelazko neurri hau gomendatzen du: kargu publikoa kargutik kentzea, EJKren 15 d) atalean eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.

EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA

**JARDUERAK GARATZEKO BATERAGARRITASUNARI/
BATERAEZINTASUNARI BURUZKO GAIAK (2)****GAIA: 6/2017**

2017ko apirilaren 21ean, Langileen Erregistroko arduradunaren idazki bat sartu zen Etika Publikorako Batzordearen (EPB) erregistroan; idazki haren bidez, interesdunak kontsulta bat egin zuen: ea tarteka parte har dezakeen (...)ri lotutako prestakuntza- eta komunikazio-ekintzetan, orain betetzen ari den kargu publikoan egon aurretik (...) gisa aritzen baitzen eta esperientzia handia baitauka arlo horretan.

ERABAKIA:

Interesdunak berehala abiarazi behar ditu, dagoeneko abiarazi ez baditu, “aplikatu beharreko legediak” bateraezintasunen arloan aurreikusten dituen administrazio-prozeduren izapideak, nahitaezkoa den bateragarritasun-deklarazioa eskatu eta eskuratzeko. Puntu horretan, modu bakarra dago jarraibide etikoa betetzen dela egiaztatzeko: arau juridikoak zorrotz betetzea.

Kontsultaren egileak, printzipioz, kasu honetan aztergai ditugun jarduera zehatzei dagokienez, betetzen ditu EJKren 11 c) puntuak eskatzen dituen baldintza subjektibo, kronologiko eta materialak, kargu publikodunek “hitzaldiak emateagatik edo eztabaidetan parte hartzeagatik” diruzko edo gauzazko sariak jaso ahal izateko.

Kontsultaren egileak egin nahi dituen prestakuntza-jarduerak arrazoizko denboran egiten ahalegindu beharko du, jarduera akademikoko dedikazioak ez ditzan ordezkatu edo alde batera utzi karguari berez lotutako eginkizunak, eta ez diezaion eragin, etengabe edo noizean behin, arduradun publiko batek bere lanaldian bermatu behar duen dedikazio eksklusiboari.

**BATERAGARRIA DA, DENBORAN ARRAZOIZKOA DENAREN
BARRUAN EGITEN DENEAN. EZ DA URRATU EJK.**

GAIA: 10/2017

2017ko (...) 11ko mezu elektronikoen bitartez, Eusko Jaurlaritzako (...) zuzendaria den interesdunak kontsulta egin zion Etika Publikorako Batzorde honi (EBP) (...) eztabaida eta solasaldi politikoko saioan parte hartzeari buruz.

Honakoa gehitzen du: *“nire izendapenaren berri izandakoan, jakinarazi nuen aurrerantzean ez nintzela saio horietara joango (...)”*. Era berean, baieztatu duenez, (...) saioko ekoizleei jakinarazi zien Eusko Jaurlaritzan kargu publiko bat betetzeko izendapena jaso zuela, *“horren zioz ordainsaririk ordaindu ezin izango zidatela adierazita”*.

ERABAKIA:

Erabaki honetan erantzuten ari garen kontsulta egin den unean —(...) 11n—, interesdunak oraindik ez zuen formalizatu EJK-ren betekizunetara pertsonalki eta banaka atxikitzeko izapidea, eta, beraz, ez da berriazko adierazpenik egingo bere jarreraren zilegitasun etikoaren gainean.

Interesdunari gogorarazten diogu ezen EJKren 18. apartatuko 1. eta 5. puntuetan ezarritakoaren arabera, *“kargu publikodunen izendapen berriak egiten badira, ezinbestekoa izango dela kargu berri horiek, banan-banan, Kodearen edukiari atxikitzea”*. Horrenbestez, aipatu atxikipena epe barruan egiten ez bada, *“ulertuko da interesdunak ez duela Etika eta Jokabide Kodea betetzen, eta, jarraian, luzamendutan ibili gabe, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, jarduketak instruitzeari ekingo zaio Etika Publikorako Batzordean. Batzorde horrek, entzunaldiaren izapidea egin ondoren, eta, beharrezkoa bada, arduradunari proposatuko dio kontratua desegin dadila edo interesdunak kargua utzi dezala”*.

Kontsultaren egileak batez ere gaurkotasun politikoarekin lotutako gaiak jorratzea xede duen eztabaida eta hizketaldirako programa batean parte hartzen jarraitu nahi badu, EJK-ren 15. apartatuak horretarako ezartzen dituen lau jarraibideak bete beharko ditu: baimena, doakotasuna, erakundearekiko leialtasuna eta koherentzia.

Baimena dela-eta, kontsultaren egileak dagokion bateragarritasuna eskatu —eta eskuratu— beharko du, eta, horretarako, ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako prozedura beteko du.

EJK-k doakotasunari buruz dioena betetzat jotzen da, interesdunak, bere idazkiaren arabera, saioko ekoizleei izendapena jakinarazi zienean, *“horren zioz ordainsaririk ordaindu ezin izango zidatela adierazita”*.

Erakundearekiko leialtasuna eta koherentzia direla kausa, bere esku-hartze guztietan hertsiki bete behar du erabaki honen 14. eta 15. puntuetan adierazitakoa. Kontsultaren egileak ezingo du parte hartu programan bere iritzi pertsonalak adierazteko, baizik eta une oro *“Gobernuaren berezko jarrerak”* defendatzeko; ondorioz, ezin izango du inoiz adierazi *“jarrera politikoezikiko desadostasunik, eta jarrera horiek ez ditu argi eta garbi kritikatu”*, eta salbuespen-kasuetan eta puntualki soilik *“aldendu”* ahalko da horietatik. Halakorik egiten badu, *“ez du parte hartuko, eta bestela, adierazi behar du iritzi horiek pertsonalak direla, eta horrenbestez, Gobernuaren politikarekin zerikusirik ez dutela”*.

KONTSULTAREN UNEAN, GOI-KARGUDUNAK EZ DAUKA FORMALIZATUTA EJK-REKIKO ATXIKIMENDUA. EBPk GOGORARAZTEN DU EJKri EZARRITAKO EPEAN ATXIKI BEHAR ZAIOLA

3

Prestakuntza- eta zabalkunde-jarduerak

2016. urteari buruzko memoriako ondorioen eta gomendioen kapituluan, honako hau azpimarratu genuen: “komenigarria iruditzen zaigu Etika eta Jokabide Kodearen berri ematen eta haren gaineko prestakuntza eskaintzen jarraitzea, bai administrazioan bai gizartean, hain zuzen ere pedagogia egiteko eta eredu izateko duen asmoarekin bat”.

Kanpoko dimentsioan lan hori bereziki garrantzitsua da, kontuan hartzen bada 2016. urtearen amaieran egindako hauteskunderen ondoren, EAEk legegintzaldi berri bat hasi zuela, horrek Jaurlaritzaren osieran eta Euskadiko Administrazio Orokorreko goi mailako zuzendaritza-eginkizunean diharduten pertsonengan ekarri zituen aldaketekin.

Testuinguru horretan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) bi mintegi antolatu ditu, berriaz zuzenduak kargu publikodunen kolektiboari, integritate instituzionalaren erduekin, gobernantza etikoarekin eta Eusko Jaurlaritzako EBPrek berriazko edukiekin lotutako gaiak aztertzeko.

2017ko ekainaren 14an, Vigoko Udaleko idazkari Concepción Campos Acuña andreak —kudeaketa publikoarekin, Zuzenbide Administratiboarekin eta integritate instituzionalarekin lotutako gaietan erreferentziako egilea denak— honako izenburu hau zeraman mintegia eman zuen: “Etika publikoa Gobernu Irekiaren erronken aurrean”.

Halaber, 2017ko abenduaren 20an, aholkulari instituzionala eta UPF Unibertsitateko katedraduna (egiaztatua) den Rafael Jimenez Asensiok honako gai hau jorratu zuen: “Integritate instituzionala: kargudun publikoak, zuzendaritzako langileak eta funtzionarioak”.

Bestalde *Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas*, aldizkariaren 13. aleak (2017ko ekaina-abendua) bi artikulua argitaratu zituen etika publikoarekin lotutako gaiari buruz:

- Concepción Campos Acuña: “Supuestos de responsabilidad de los empleados públicos. De los aspectos éticos al ámbito penal” (or.: 30etik 39ra)
- Rafael Jimenez Asensio: “Una mirada comparada sobre algunas experiencias de códigos éticos y de conducta en la función pública” (or.: 58-79)

Sektore publiko autonomikoko kargu publikodunen artean integritatearen eta gobernantza etikoaren errekerimenduak zabaltzeko xede berarekin, IVAPek, Catarata argitaletxearekin batera, Rafael Asensioaren liburu bat argitaratu zuen 2017an: *Cómo prevenir la corrupción. Integridad y transparencia*.

Bestela ere, Etika Publikorako Batzordea osatzen duten pertsonak 2017an jarraitu egin dute organo horrek integritate instituzionalaren euskal sistemaren esparruan metatu duen eskarmentua zabaltzen eta ezagutzera ematen.

Elisa Pérez Verak parte hartu zuen Oviedoko Unibertsitateak 2017ko irailaren 25etik 27ra antolatu zuen “Gobernanza, confianza y cultura de riesgo” izenburuko nazioarteko biltzarrean, eta “Administración y representación” panelean ponentzia bat aurkeztu zuen.

Bestalde, 2017ko urtarrilaren 25ean, Txetxu Ausín Diezek “Ética Pública y códigos de buen gobierno” izenburuko ikastaroa eman zuen Administrazio Publikoaren Institutu Nazionalak (INAP) antolatutako Estatuko Administrazio Orokorreko masterrean; “Ética Pública y valores municipales” izenburuko ponentzia aurkeztu zuen *Federació de Municipis de Catalunya* erakundeak 2017ko otsailaren 3an antolatutako “Ética pública y valores municipales para cargos electos y funcionarios de la administración local de Cataluña” prestakuntza-mintegian, eta “IV Congreso Internacional del avance del Gobierno Abierto-II Congreso de Buen gobierno y transparencia de la Comunitat Valenciana” izeneko biltzarrean parte hartu zuen 2017ko irailaren 6an eta 7an, honako izenburua zuen hitzaldiarekin: “La experiencia de una comisión de buen gobierno y propuestas de mejora”.

4

Ondorioak eta gomendioak

EJKren 16.3 puntuak hau egiteko ahalmena ematen dio EPB honi: “Etika eta Jokabide Kodean egin beharreko aldaketak proposatzea Gobernu Kontseiluari”.

Ahalmen hori erabiliz, eta memoria honen 2. zenbakiko epigrafean egin ditugun gogoetak aintzat hartuta, gomendio hauek egiten dizkiogu Gobernu Kontseiluari, errespetu guztiarekin, aztertu eta, egoki iritziz gero, praktikan jartzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har ditzan.

LEHENA

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotako agindu etikoak euskal sektore publiko autonomikoari aplikagarriak zaizkiola zalantzan jarri gabe, zeren eta hain zuzen ere beren oinarrizko edukiarengatik balio orokor eta komunak baitituzte Estatuko erakunde publikoetan zerbitzuak ematen dituzte pertsona guztientzat, txalogarria litzateke ezen, EJKren 2.2 apartatuan xedatuarekin bat, Eusko Jaurlaritzak bultza dezala —sindikatuarekin negoziatu ondoren, haiek Administrazioaren konpromiso etikoetan integratzeko asmoz— “enplegu publikoari buruzko euskal legedian” aurreikuspen batzuk sartzea, zeinek aukera emango baitute langile guztiei zabaltzeko EJK-k kargudun publikoentzat ezartzen dituen balio eta printzipio etikoak, eta, kasua bada, susta dezala aipatutako apartatuak aipatzen duen Jokabide Kodearen onespena, bete beharreko edo saihestu beharreko jokabideen taula bat zehaztuz, zeinak funtzio publikoaren esparru berariazkoa proiektatuko baititu 1/2014 Legeak erakunde osoarentzat ezartzen dituen balio eta printzipioak, hain zuzen ere EJK-k kargudun publikoentzat garatzen, finkatzen eta zehazten dituenak. Izan ere, balio eta printzipio horiek erakundearenak berarenak ere badirenez, haren zerbitzuan diharduten gainerako langileek ere aintzat hartu beharrekoak dira.

BIGARRENA

Jaurlaritzari gomendatzen diogu azter dezan aukerarik ba ote dagoen EJKn aurreikuspenen bat jasotzeko, zeinak ez duen nahitaez ekarriko kargu publikodunek kodearekiko atxikipena formalizatzeko ezarritako epea laburtzea —badakigu, jakin, kargu publiko baten izendapena burutzeko legez ezarritako izapideak ezin direla beti bete denbora-tarte labur batean— baina eragotziko duena izapide hori bete gabe duten kargu publikodunak materialki salbuetsita egotea kodearen postulatuak betetzetik. Hori gauzatzeko balizko formula bat zera izan daiteke: atxikipena egitea interesdunak kargua hartzen duela iragartzen duen unean bertan.